

ZER ESKAINTZEN DIO HORIZONTE 2020k NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL SEKTOREARI?



HORIZONTE 2020ren AUKERAK



Horizonte 2020 programak aukerak ematen dizkio nekazaritzako elikagaien sektoreko edozein erakunderi (publikoa zein pribatua), nazioarteko lankidetzan ikerketa- eta berrikuntza-proiektuei aterabidea emateko, gizartearen erronka handiei irtenbidea emateko, eta industria-teknologia iraunkorra sustatzeko.

Artikulu honetan laburbildu egiten dira **aintzat hartu beharreko** alderdi garrantzitsuenak, **nahitaez aintzat hartu beharreko informazioa** eta **nekazaritzako elikagaien sektoreko ikerketa- eta berrikuntza-proposamena programa horren bidez finantzatzea lortzeko aholkuak.**

ZER DA HORIZONTE 2020?

Horizonte 2020 **Europako Batzordearen programa da**, 2014-2020 aldirako **ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko**.

78.600 milioi euroko [aurrekontua](#) du, ikerketa, berrikuntza eta teknologia-garapeneko ekimenak, ekintzak eta proiektuak babesteko eta finantzatzeko.



European
Commission

Iturria: Ikerketa eta Berrikuntza Zuzendaritza. EB

“[Europa Horizonte 2020 estrategia](#)” bultzatzeko tresna gisa balio du, eta **helburu nagusiak hiru dira**:

- **Europako herritarren 7 erronka nagusiei heltzea.**
- **Europar industria-lidergoa sortzea, mantentzea eta indartzea.**
- **Zientzia-oinarriaren bikaintasuna sendotzea.**

Informazio gehiago: “[Horizonte 2020: sarrera](#)” ([eguneratuta 2014ko uztailaren 22an](#))

JOKO ARAUAK SINPLETzea

Lehenagoko finantzazio-programen konplexutasuna eta aniztasuna ikusita, **funts komunitarioen eraginkortasuna bultzatzeko eta onuretarako sarbidea errazteko, Horizonte 2020 programa berri honetan arauak sinpletu egiten dira**:

- Europako Batzordean ikerketa eta berrikuntza sustatzeko zeuden **5 finantzazio-tresnak batu dira** (jatorria Nekazaritza, Arrantza, Ikerketa eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusia zen).
- **Deialdien I+b lerro zehatzak orokorrakoak dira**, ez hain deskriptiboak. Bestalde, askatasuna ematen dute, eragin handiko irtenbide berritzaileak proposatu ahal izateko
- **Bi urteko lan-programak** (ez urtebetekoak). Horrek erraztu egiten du proposamenak aldeztu aurretik prestatzea.
- **Gakoa**: Proiektuek **berritzaileak** izan behar dute, eta aldi oro **merkatura bideratu** behar dira.
- **Lehentasuna ematen zaie** ustiapen-estrategia eta **produktuaren azken aplikagarritasun** argi eta definitua dituzten proiektuei.

Zer eskaintzen dio HORIZONTE 2020k NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL SEKTOREARI?



- **ETE-en parte-hartzea bultzatzea, Europako merkatura teknologia-berrikuntza iraultzaileak eta zerbitzu berritzaileak emateko potentzialagatik eta aukeragatik.**
- Ikerketako eta berrikuntzako **emaitzak eskualdatu eta ezagutarazi** beharra: sarbide irekia ikerketatik eratorritako datu guztietara.
- **Parte-hartzailearen web ataria:** proposamenak bilatzeko, aurkezteko eta ebazteko **tresna bakarra** (EBk jada ez du ezer igorriko paper formatuan).
- **Diru-laguntzaren ebazpen (“grant agreement”) sinpleagoa**, deialdia ixten denetik akordioa sinatzen den arteko epea murriztuta (8 hilabete).
- **Zeharkako kostuen eredu sinpletua:** finkoa (% 25), justifikazio-beharrik gabe.
- **Ekarpen komunitarioaren emate-epea aurreratzen da**, eta **proiektuen jarraipen-ikuskaritza** gutxiago egongo da.
- **Ebaluazio-irizpideak: bikaintasuna, eragina eta aplikagarritasunaren eraginkortasuna.**

HORIZONTE 2020: ZUTABEAK

Horizonte 2020ren oinarrian hiru zutabe daude, eta horiek helburu gakoak dira **“Europako Horizonte 2020 estrategian:**

Honako hauek osatzen dute:

Zientzia bikaina

1. Europako Ikerketa Batzordea (EIB)
2. Etorkizuneko teknologiak eta teknologia emergenteak (FET)
3. Marie Skłodowska Curie ekintzak
4. Ikerketa-azpiegiturak

Industria-lidergoa

1. Lidergoa teknologia bideratzaileetan eta industriakoetan
 - 1.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)
 - 1.2. Nanoteknologiak, 1.3. Material aurreratuak eta 1.5. Ekoizpen eta eraldatze aurreratuak
 - 1.4. Bioteknologia
 - 1.6. Espazioa
2. Arrisku-finantzaziorako sarbidea
3. Berrikuntza ETE-etan

Gizarte-erronkak

1. Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea
2. Elikagaien segurtasuna, nekazaritza eta basozaintza iraunkorrak, itsas ikerketa, itsasokoa eta ibai-urena, eta bioekonomia
3. Energia segurua, garbia eta eraginkorra
4. Garraio inteligentea, ekologikoa eta integratua
5. Klimaren, ingurumenaren, baliabideen eraginkortasunaren eta lehengaien aldeko ekintza
6. Gizarte inklusiboak, berritzaileak eta hausnartzaileak
7. Gizarte seguruak

Iturria: [Horizonte 2020 parte-hartzailearen gida \(eguneratuta 2014ko ekainan\)](#)

Zer eskaintzen dio HORIZONTE 2020k NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL SEKTOREARI?



- **Batzordearen Ikerketa Zentro Komunaren (JRC)** ekintzak
- **Europar berrikuntza garatzeko** ekintzak ([EIP](#)).
- **Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutuaren** ekintzak ([EIT](#)).
- **“Bikaintasuna zabalduz eta parte-hartzea handituz”** eta **“zientzia gizartearekin eta gizarterako”** zeharkako ekintzak, h2020ren onuren berri emateko eta gizartean ondorio positiboak izan ditzaten.

Informazio gehiago: [“horizonte 2020: gaiak”](#) eta [“ekimen handiak”](#).

PARTE HARTZEKO GUTXIENEO ESKAKIZUNAK

- **EBko edozein herrialdean, herrialde atxikitan edo hirugarren herrialde batean berezko entitate juridikoko erakundea izatea:** enpresa, enpresa-elkarte, ikerketa-zentroak, teknologia-zentroak, unibertsitateak, herri-administrazioak, fundazioak, erabiltzaileak oro har.
- **Bat egitea I+b lerro espezifikoekin** (deialdietan zehaztu dira). **Nazioz haraindiko partzuergo** bat sortzea, gutxienez **elkarren artean independenteak diren 3 erakunderekin, 3 estatu kidetan edo atxikitan.**
- **Europar balio erantsia ematea.** Proiektuek aurrerapen bat ekarri behar dute jada existitzen den ezagutzaren gainean, eta/edo egiazko berrikuntza bat Europako merkatuan.
- **Taldean lan egitea,** proiektuaren exekuziotik bertatik eratorritako ezagutzak eta arriskuak partekatuta.
- Proiektua behar bezala garatzeko **beharrezko denbora eta baliabideak inbertitzea.**

Informazio gehiago: [“Parte hartzeko arauak”](#)

ZERTAN PARTE HAR DEZAKET ETE GISA?

Horizonte 2020ko berrikuntza gisa, handitu egiten dira ETEaren parte hartzeko aukerak, eta *Gizarte erronken* (3. zutabea) eta *Industria-lidergoaren* (2. zutabea) aurrekontuaren % 20 ETE-etara bideratzen da.

Horrela, hauetan parte har dezakete:

- **I+b lankidetzako proiektuak**, *Erronka* (2. zutabea) eta *Teknologia* (3. zutabea) bakoitzaren deialdi bakoitzean parte-hartze aktiboa izanda.
- **ETE tresnaren proiektu zehatzak**, 2. eta 3. zutabeko gai oso irekietan. **Banakako proiektuak izan daitezke eta % 100 finantzatu dira**, enpresa txiki eta ertain horiei babes emateko, dimentsio europarreko berrikuntza-proiektu baten bidez hazteko eta garatzeko anbizioa badute.
- **Langileen trukatzeko ekintzak**, Marie Skłodowskaren (1. zutabea) ekintzen bidez, erakunde publikoen eta enpresaren arteko teknologia-transferentzia hobetzeko.
- **Arrisku-finantzaziorako sarbidea**, 2. zutabearen, finantza-bitartekariari kapitala edo bermeak eskatzeko, Horizonte 2020ko funtsen [COSME tresnarekin](#).
- **Berrikuntzari lotutako zerbitzuak** (2. zutabea), [Enterprise Europe Network](#)-en bidez, ETE-en berrikuntza-ahalmena handitzeko, lehiakortasuna, iraunkortasuna eta hazkundera hobetuz.



Informazio gehiago: [“ETE parte hartzea”](#)

ZER ONURA DAKARZKIT HORIZONTE 2020k?

- ✓ Finantzazio pribilegiatua (% 70-100), eta alde zurreratik.
Zure erakundea Europan ikusgarria eta prestigioduna izatea.
Lankidetzazko hizpide den esparruko erakunde eredu garriekin.
- ✓ Ikasteko eta ideia sustatzaileei balioa emateko aukera.
- ✓ Informaziorako eta ezagutza berrietarako zuzeneko sarbidea Europan.
- ✓ Zientzia- edo industria-arazoei aurre egitea.
- ✓ Eraberritze teknologikoa.
- ✓ Zientzia- eta industria-lehiakortasuna handitzea.
- ✓ Sektorea norantz doan ezagutzeko eta zerbitzu zein merkatu berrietara irekitzeko aukera.
- ✓ Europako saretan parte hartzea.

PROIEKTUKO ZEIN KOSTU FINANTZATZEN DIT?

- ✓ Finantzazioa **diruz lagun daitezkeen kostuak itzulita** egiten da (zuzeneko eta zeharkako kostuak).
- ✓ Kontratua sinatu ondoren, ekarpen komunitarioaren **zati bat alde zurreratik**

transferitzen da, proiektua garatzeko likidezia edukitze aldera.

- ✓ **Zeharkako kostuek** zuzeneko kostuen % **25eko** tasa bakarra dute kasu orotan.
I+b proiektuak eta koordinazio- eta babes-ekintzak: proiektuetan **diruz lagun daitezkeen kostuen % 100.**
- ✓ **Berrikuntza-proiektuak:** **diruz lagun daitezkeen kostuen % 70** irabazi-asmoa duten erakundeentzat.
Berrikuntza gisa, irabazi-asmorik ez duten eta proiektuan lider diren erakundeek aukera dute pertsonako eta urteko 8.000 € eskatzeko, zuzeneko kostu gisa, betiere erakundearen ohiko ordainketa-politikaren zati bada.


Informazio gehiago: [“H2020: eranskin orokorrak”\(eguneratuta 2014ko uztailaren 22an\)](#)

NOLA PRESTATUKO DUT PROPOSAMEN BAT HORIZONTE 2020rako?

Proposamen batera aurkezteko, hasiera batean bi bide daude: **idea propio bat oinarri hartzea** (neurri handi batean, proiektuaren edo ekintzaren koordinatzailea izatea dakar) edo hirugarren batek gidatutako **partzuergo batekin bat egitea.**

Bi kasuetan zenbait pausu eman behar dira, ideia sortzen denetik proiektua errealitate bihurtzen den arte.

Informazio gehiago: [“Europako proiektuen arrakasta: faktoreak”](#)



Zer eskaintzen dio HORIZONTE 2020k NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL SEKTOREARI?



ELIKAKATERAKO AUKERAK: 2. GIZARTE ERRONKA

3. zutabeak 2. gizarte-erronka jasotzen du: **"Elikagaien segurtasuna, nekazaritza eta basozaintza iraunkorra, itsas ikerketa, itsasokoa eta ibai-urena, eta bioekonomia"**.

Gizarte-eronka honek aurreko KBBEaren esparru-programen ikuspegiari eusten dio, "sardexkatik abeletxera" filosofiarekin, kontsumitzailearengandik elikagaiaren jatorria, **kalitatea eta segurtasuna zainduz elikakate osoan zehar**.

Berrikuntza gisa, **iraunkortasunaren** kontzeptua jaso da, hala nekazaritzaren, abeltzaintzaren, akuikulturaren eta arrantzaren **jatorrian eta ekoizpenean, nola elikagaien kontsumoan**, handitzen ari baita kontsumitzaileen eskaria.

Joan den 2013ko abenduaren 11n ireki ziren erronkako hiru arlo handietako deialdiak:


- **Elikagaien segurtasun iraunkorra**, grafikoan jasotako 3 I+b lerroekin.
- **Hazkunde urdina** (itsaso eta ozeanoak).
- **Bioekonomia berritzailea**, **iraunkorra eta inklusiboa**.

Informazio gehiago: ["Lan programa. 2.gizarte erronka" \(eguneratuta 2014ko uztailaren 22an\)](#)


ETE GISA, NORA JO BEHAR DUT NIRE EKIMENAREKIN?

Europako Batzordea

[Deialdietako I+b lerroen](#) zehaztasun guztiak aurki daitezke Parte-hartzailearen atarian. Hain zuzen ere, hori da I+b programekin interakzioa izateko eta beharrezko dokumentazioa lortzeko sarbide bakarra.



- **Deialdien deskripzioa:** jarduera-lerro zehatzen laburpena (*topic*). Aurkeztuko den proiektuak bat egin behar du horiekin.
- **Lan-programak:** deialdi bakoitzeko *topic*en zehaztasuna, aurkezteko proiektua edo tresna, eta finantzazioaren ehunekoa.



[Iturria: CDTI Infoday Horizonte 2020 2. gizarte-erronka. 2014ko urtarrilaren 31. Eusko Jaurlaritza](#)

Zer eskaintzen dio HORIZONTE 2020k NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EUSKAL SEKTOREARI?



MIMECO

Ekonomikoa eta Lehiakortasuna Ministerioaren [Horizonte 2020 Spainian](#) webgunean informazio garrantzitsua jasotzen da, Horizonte 2020ra arrakastaz sartu nahi diren erakundeentzat.



ENTERPRISE EUROPE NETWORK (EEN)

[EEN](#) enpresei babesa emateko ondoen ezarritako Europako sarea da, irismen sakona duena ETE-etan eta berrikuntzaren babes-esparruetan. Beraz, **Europako ETE-etarako leihatila bakarra da.**



Euskadin, [EEN \(www.eenasque.net\)](#) honako hauek osatutako partzuergoaren bidez dago presente: hiru merkataritzaganberak, BFA, Innobasque eta SPRI. Zehazki, aholkularitza eta babesa eskaintzen die enpresei arlo hauetan:

- Laguntza, ETE-ek Europako I+b programetan parte hartzeko, enpresen diagnostikoa eginez, proiektuaren ideiak aldeaz aurretik aztertuz zein ikuspegia emanez eta [nazioarteko bazkideak bilatuz](#).
- Laguntza ezagutza, teknologia eta berrikuntza transferitzeko.
- Merkataritza- eta nazioartekotze-lankidetzako zerbitzuak.

SPRI

[SPRI](#)k, Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, bere laguntza eta zerbitzuen bidez lagundu eta bultzatu egiten du euskal enpresen hazkunde ekonomikoa.

Hori dela eta, **berritzeko eta ekiteko ahalmena duten ETE-ek SPRIra** jo dezakete, babesa eman diezaien, euskal enpresa horien **nazioarteko kudeaketa-ahalmenak** indartzuz.



Eusko Jaurlaritza

[Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak](#) nekazaritzako elikagaien euskal sektoreko edozein enpresaren zerbitzura jartzen ditu ikerketa- eta/edo berrikuntza-jarduerak eta proiektuak finantzatzeko eskaintzen dituen laguntzak.



ITGZ

Industria Teknologia Garatzeko Zentroak ([ITGZ](#)) erakunde ororen esku jartzen du **Estatuko, Europako eta nazioarteko I+G+b laguntzen mapa**, I+G+b esparruko enpresa-jarduerak gauzatzeko.



ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK

- CDTI-MIMECO- [Horizonte 2020 parte-hartzailearen gida \(gida berria- 2014ko ekaina\)](#)
- CE - [Horizonte 2020 diru-laguntzaren hitzarmenaren gida \(gida berria- 2014ko apirila\)](#)
- MIMECO – [Horizonte 2020 dokumentu ofizialak jasotzen dituen taula.](#)
- MIMECO – [Horizonte 2020ko harremanetarako puntu nazionalak.](#)
- EB – [Horizonte 2020 eskuliburua](#)

INFORMAZIO INTERESGARRIA

- MIMECO- [Horizonte 2020ko berrien boletina](#)
- EB – [Horizon. Europar Batasunaren I+G+b-ari buruzko aldizkaria.](#)
- EB – [Horizonte 2020ri buruzko albisteen ataria.](#)

Elikagaien Segurtasunari
buruzko informazio
gehiago kontsultatu nahi
duzu?

http://www.elika.net/eu/novedades_investigacion.asp

